

Richard Oribe. Irribarre txiki batekin beti

24 urteko kirol ibilbide oparoaren ondoren, Rioko jokoan atarian goi mailako jardunetik erretiroa hartzea erabaki du Richard Oribe Donostiako igerilari paralinpiarrek.



GORKA RUBIO / ARGZINIPRES

Unai Zubeldia

Richard Oriberri ez jarri ondoan *etsipena* hitza. Ezinezkoa da bi punta horiek lotzea. Ohiko haurdunaldiaren ondoren, jaio orduko semeak bizirik irauteko lanak izango zituela esan zieten medikuek Gonzalo Oribe eta Rosa Lumbrerasi, Richard Oriberen gurasoei. Garuneko paralisia. Begetal geratzeko arriskua. Baina 24 urteko kirol ibilbide oparoaren ondoren hartu berri du erretiroa donostiarrak, 42 urterekin, Portugalen, Funchalen jokatu berri den Europako Txapelketan. Paralinpiar Jokoak, Munduko Txapelketak eta Europako Txapelketak kontuan hartuta, 66 domina –urrezkoak 42– eta milaka bizipen pilatu ditu gipuzkoarrak. Paralinpiar igerilarien artean historiako onenetakoa da gipuzkoarra.

Desiratutako amaiera irudikatu, Rio de Janeiroko Paralinpiar Jokoak zeuzkan begiz jota, zazpigarren jokoak, baina ezker sorbaldak eta aurkariek bidaiarik gabe utzi dute. «Saiatzea erabaki zuen denboraldi hasieran, eta tarte erronka txikiagoak jarri ditugu bide luze horretan», azaldu du Javier de Aymerich entrenatzaileak. Baina emaitzak ez dira izan nahi bezain onak. «Adinak ere ez du barkatzen dagoeneko, eta oinazeekin dabil azkenaldian». Donostiara seigarren izan zen joan den larunbatean 50 metroko finalen. Azken pausoa falta izan zaio loriazko bidaiari. Barzelonan egin zuen debuta Jokoean, 1992an, eta atzetik iritsi ziren Atlanta (1996), Sydney (2000),

Atenas (2004), Pekin (2008) eta Londres (2012).

Portugalgo bidegurutzeari okeerreko bidea hartu arren, ordea, dominek eta bidaiak ematen ez dutena lortu du Oribe. Aurretik ezer prestatu gabe bazegoen ere, Europako Txapelketako 50 metroko finala amaitu, igerilekutatik atera, eta txalo zaparrada handia eskaini zioten zaleek. «Azkene-

NORTASUN AGIRIA

Izen-abizenak. Richard Oribe Lumbreras.

Jaioterria. Donostia.

Jaioteguna. 1974ko otsailaren 22a.

Maila. S4. Garuneko paralisia du.

Probak. Estilo libreko 50, 100, 200 eta 400 metrokoak. Txandakakoetan ere lehiatzen da.

Kluba. Konporta.

Entrenatzailea. Javier de Aymerich.

Garaipen zerrenda. Hamasei domina irabazi ditu Olinpiar Jokoean: urrezkoak zortzi, zilarrezkoak sei eta brontzezkoak bi. Munduko txapelketetan 22 domina eskuratu ditu: urrezkoak hamabi, zilarrezkoak zazpi eta brontzezkoak hiru. Europako txapelketetan, berriz, 28 domina lortu ditu: urrezkoak 22 eta zilarrezkoak sei. Guztira, 66 domina irabazi ditu olinpiar jokoean eta munduko eta Europako txapelketetan. Nazioarteko lehiaketa guztiak kontuan hartuta, 135 domina lortu ditu.

Munduko markak. 48 aldiz hobetu du munduko markaren bat.

Bestelakoak. 2008an Euskadi kirol saria irabazi zuen.

koz uretan sartu bezperan jakinarazi genien Richarden azken proba izango zela, eta bozgorailuetatik jakinarazi zuten albistea. Zoragarria izan zen. Harmailetan zale guztiak zutik, txaloka, besarkadaka...». Irribarre ahoan eta poza barrenean, inguruaren maitasunarekin eta miresmenarekin hartu du erretiroa donostiarrak. «Ederra izan da agurra, eta zoratzten dago Richard». Egutegi estu-estuan, Albaceten (Espainia) izan zen atzo, Gurutze Gorriak Espainiako Paralinpiar Batzordeari emandako saria jasotzen.

Gazteenekin lanean

Medikuen diagnostia okerra zela erakusteko bide zailen, gurasoek eta Oribe berak gogotik lan egin zuten lehen egunetik bertatik. Terapia gisa hasi zen igeri, 4 urte eskasekin, uretatik kanpo baino uretan orekari hobeto eusten ziola ohartuta. Futbola, bizikleta edo pisu jaurtiketa nahiago zituen kirolen artean, gurasoek sarri aitortutakoa da hori, baina terapia lanak bideratu zion etorkizuna. Izar bihurtu da igerilekuan, eta izarrei begira egoten da bi astetik behin Anoeta estadioan –Realeko zale sutsua da–, eta Illunben, Retabet.es Gipuzkoa Basketen partidetan. «Aurrerantzean denbora gehiago izango du bere zaletasunekin gozatzeko».

Jaiotzetik gorra da donostiarra, baina egunerokoa asko samurtu dio orain hamar urte jarri zioten koklea implanteak. Gailuak berak eta eguneroko lan gogorrek komunikazio gaitasuna hobetzen lagundu zion, eta nabarmena da azken urteotan hizketan izan duen hobekuntza. Umeekin la-

nean aritzen da igerilekuan, De Aymerichekin batera entrenamendu saioetan, berak pixkanaka barneratutako jakintzak ondorengoei transmititzeko lan e-



Harmailetan zale guztiak zutik, txaloka, besarkadaka... Ederra izan da agurra, eta zoratzten dago Richard»

Javier de Aymerich

Richard Oriberen entrenatzailea

rrean. «Aurrerantzean ardua handiagoa hartuko du gatzetxeekin, izugarri daukalako eskaintzeko igeriketari».

Maiatz amaieran, esaterako, bere izena duen sarian uretan

izango da berriz ere. Eliteko lehiaketak alboratu arren, igeriketak bizi duelako donostiarra. Urak eman dio bizia, hasieran hain kuttuna ez zuen inguruak, eta uretan

murgilduta jarraituko du aurrerantzean ere. Ingaratzen zaion guztiari irribarre txiki bat eskainiz beti. Bizitzak eman dion aukerari keinu txiki bat eginez beti. «Euskadiko Txapelketa, Espainiakoa... Joango gara oraindik ere, baina gozatzea eta pozik bizitzea izango da helburua». Egindako guztia- ren ordainetan, ez du faltako omenaldirik eta esker on hitzik. «Eta horrek indarra emango dio, urteotan egin duena garrantzitsua dela ikusiko duelako».

ATHLETIC CLUB

SAN MAMES FUTBOL ZELAIA



Maiatzaren 14a larunbata, 19:30etan
Liga Txapelketa, 1. Maila

ATHLETIC CLUB – SEVILLA FC

TXARTEL SALMENTA

Sarrerak Klubeko Webgune Ofizialetik www.athletic-club.eus eta BBKren orotarako kutxazainetan ere eskuratu ahaliko dira **MAIATZAREN 9KO 10:30etatik aurrera eguneko 24 orduetan**.

TXARTELDEGIA: SAN MAMES FUTBOL ZELAIA.

Ostirala 10:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 20:00etara
Larunbata 10:30etatik 13:00etara eta 17:30etatik aurrera.

PLIKUOK LAU SARRERA PERTSONAKO BAKARRIK EROS DITZAKE SARRERA GUZTIAK AGORTU ARTE

